



VOXEL
SCHOOL

CENTRO UNIVERSITARIO
DE ARTES DIGITALES

CENTRO ADSCRITO A:



Deusto
Universidad de Deusto

NORMATIVA DE PROGRESO Y PERMANENCIA EN LOS ESTUDIOS DE PRIMER Y SEGUNDO CICLO IMPARTIDOS EN LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO

Acuerdo 2/2024, de 13 de junio, del Consejo Académico, por el que se modifica la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto, aprobada por el Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico y modificado por el Acuerdo 2/2022, de 24 de noviembre, del Consejo Académico y por el Acuerdo 2/2023, de 9 de marzo, del Consejo Académico (promulgados por Orden del Rector 12/2024, de 14 de junio)

Kontseilu Akademikoaren 2/2024 Erabakia, ekainaren 13koa, Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudia (Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 2/2016 Erabakiaren bidez onartua eta Kontseilu Akademikoaren azaroaren 24ko 2/2022 Erabakiaren bidez eta Kontseilu Akademikoaren martxoaren 9ko 2/2023 Erabakiaren bidez aldatua) aldatzen duena (Errektorearen ekainaren 14ko 12/2024 Aginduaren bidez aldarrikatua)

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

1. En el contexto universitario, los tribunales de compensación tienen por objeto evaluar la posibilidad de que un estudiante obtenga el título de grado aun cuando no haya superado todas las asignaturas propias del plan de estudios.

Tales tribunales encuentran su fundamento jurídico en el principio de autonomía de las universidades, que comprende, entre otros aspectos, la verificación de conocimientos, competencias y habilidades del estudiantado (art. 3.2.I Ley orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del sistema universitario).

En este marco legal, el Estatuto del estudiante universitario prevé que las universidades, puedan establecer mecanismos de compensación por materia y formar tribunales que permitan enjuiciar, en conjunto, la trayectoria académica y la labor realizada por el estudiante y decidir si está en posesión de los suficientes conocimientos y competencias que le permitan obtener el título académico al que opta (art. 23.5 Real Decreto 1791/2010, de 30 de diciembre).

2. La Universidad de Deusto ha hecho uso de esta posibilidad, aprobando sucesivamente diversas normas de carácter general, si bien dejando en manos de las facultades su aplicabilidad a través de sus normas específicas. En consecuencia, la aplicación concreta de los tribunales de compensación no ha sido uniforme. Por un lado, no todas las titulaciones y facultades admitían la compensación; por otro lado, aquellas que la admitían, no lo hacían con los mismos criterios.

3. La colaboración entre las facultades es cada vez mayor, ofreciendo dobles titulaciones de carácter interfacultativo. Ello implica que un mismo estudiante pueda verse simultáneamente afectado por dos normativas diferentes y, en ocasiones, contrapuestas. Ante este nuevo contexto y en aplicación de los principios generales de equidad y seguridad jurídica, procede aprobar una normativa uniforme sobre la evaluación excepcional a través de un tribunal de compensación. Dicha normativa se integrará en la general de progreso y permanencia de la Universidad de Deusto (Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico y modificado por el Acuerdo 2/2022, de 24 de noviembre, del Consejo Académico y por el Acuerdo 2/2023, de 9 de marzo, del Consejo Académico).

4. A tal efecto, se crea un nuevo capítulo V (arts. 14 a 20) que regula las condiciones para la evaluación por compensación. Será aplicable a todos los títulos de grado con excepción de los títulos de la Santa Sede (facultad de Teología), dada la especificidad de estos que, en todo caso, no se ofertan junto con otras titulaciones de otras facultades.

5. Por otro lado, procede la derogación, por un lado, del Acuerdo 7/2017, de 30 de mayo, del Consejo de Dirección, por el que se regula la evaluación excepcional por com-

ZIOEN AZALPENA

1. Unibertsitatearen testuinguruan, konpentsazio epaimahaiek helburu hau dute: ebaluatzea ea ikasketa planeko irakasgai guztiak gainditu ez dituen ikasle batek graduako titulua eskuratu lezakeen.

Epaimahai horien oinarri juridikoa unibertsitateen autonomia printzipioan datza; izan ere, autonomia horren barruan, besteak beste, ikasleen jakintza, gaitasunak eta trebetasunak egiaztatzea dago (Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 3.2. artikulua).

Lege esparru horretan, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuak dio unibertsitateek konpentsazio mekanismoak ezar ditzaketela jakintzagaika eta epaimahaia eratu ikasleak egindako ibilbide akademikoa eta lana oro har epaitzeko eta lortu nahi duen titulu akademikoa eskuratzeko behar adinako jakintza eta gaitasunak dituen ebazteko (abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren 23.5 artikulua).

2. Deustuko Unibertsitatea aukera horretaz baliatu da eta hainbat arau orokor onartu ditu, baina fakultateen esku utzi du aukera hori aplikatzea fakultate bakoitzeko berariazko arauen bidez. Ondorioz, konpentsazio epaimahaien aplikazioa ez da denean berdina izan. Alde batetik, konpentsazioa ez dute titulazio eta fakultate guztiek onartu; bestetik, onartu dutenek ez dute irizpide bereberkin aplikatu.

3. Fakultateen arteko lankidetzak gero eta handiagoa da, eta fakultateen arteko titulazio bikoitzak eskaintzen dira. Horrek esan nahi du ikasle batek bi araudi desberdin eta, batzuetan, kontrajarriak izan ditzakeela aldi berean. Gauzak horrela, eta ekitatearen eta segurtasun juridikoaren printzipio orokorrak aplikatuz, konpentsazio epaimahai baten bidezko salbuespenezko ebaluazioari buruzko araudi bateratuaren beharra dago. Araudi hori Deustuko Unibertsitateko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudi orokorrean txertatuko da (Kontseilu Akademikoaren 2/2016 Erabakia, abenduaren 13koa, Kontseilu Akademikoaren azaroaren 24ko 2/2022 Erabakiaren eta Kontseilu Akademikoaren martxoaren 9ko 2/2023 Erabakiaren bidez aldatua).

4. Horretarako, V. kapitulua sortu da (14-20 artikulua), konpentsazio bidezko ebaluaziorako baldintzak arautzen dituena. Graduako titulu guztiei aplikatuko zaie, Egoitza Santuko tituluei izan ezik (Teologia Fakultatea); izan ere, titulu horiek bereziak dira eta ez dira beste fakultate batzuetako titulazioekin batera eskaintzen.

5. Bestalde, zenbait arau indargabetu behar dira: alde batetik, Zuzendaritza Kontseiluaren maiatzaren 30eko 7/2017 Erabakia, lehen zikloko ikasketetarako konpentsa-



pensación para estudios de primer ciclo, modificado por el Acuerdo 10/2019, de 18 de junio, del Consejo de Dirección, y, por otro, de las normas específicas de las facultades que contemplaran expresamente la evaluación por compensación. Estas derogaciones se llevan a cabo respectivamente por los órganos competentes, Consejo de Dirección y Consejo de Facultades.

6. Por último, la aprobación de la Ley orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del sistema universitario y la derogación de la Ley orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de universidades, obliga a una actualización de las referencias a estas leyes, en las normas de progreso y permanencia de la Universidad de Deusto.

Por estas razones, realizados los trámites establecidos, tras el informe preceptivo emitido por el Consejo de Dirección y la aprobación del Consejo Académico, se DISPONE:

Artículo uno. Modificación de la normativa de progreso y permanencia

Se modifica la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto, aprobada por el Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico y modificado por el Acuerdo 2/2022, de 24 de noviembre, del Consejo Académico y por el Acuerdo 2/2023, de 9 de marzo, del Consejo Académico, en el siguiente sentido:

1. Se deroga el apartado 14 del artículo 10.
2. Se inserta un nuevo capítulo V con el siguiente contenido:

V

Evaluación por compensación

Artículo 14. Objeto de la evaluación por compensación

La evaluación por compensación tiene por objeto considerar la posibilidad de que un estudiante obtenga el título de grado aun cuando no haya superado todas las asignaturas propias del plan de estudios, analizando la adquisición de conocimientos y competencias, así como su rendimiento académico, siempre y cuando cumplan los requisitos de los artículos siguientes.

Artículo 15. Ámbito objetivo de aplicación

1. La evaluación excepcional por compensación será aplicable exclusivamente a los estudios oficiales de Grado, con excepción de los títulos de la Santa Sede (facultad de Teología).
2. No podrán ser objeto de compensación las siguientes asignaturas y requisitos:
 - 2.1. asignaturas de más de 6 créditos;
 - 2.2. asignaturas que integran el módulo de Formación Humana en Valores;
 - 2.3. trabajo de fin de grado;
 - 2.4. prácticas externas, sean obligatorias u optativas;
 - 2.5. requisito de idioma para la obtención del título.
3. La evaluación por compensación de una asignatura que forme parte de una mención del título llevará aparejada la pérdida de la mención.

zio bidezko salbuespenezko ebaluazioa arautzen duena (Zuzendaritza Kontseiluaren ekainaren 18ko 10/2019 Erabakiaren bidez aldatua), eta, bestetik, konpentsazio bidezko ebaluazioa berariaz jasotzen duten fakultateen berariazko arauak. Organo eskudunek indargabetuko dituzte, alegia, Zuzendaritza Kontseiluak eta Fakultate Kontseiluak, hurrenez hurren.

6. Azkenik, Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoa onartu da eta Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa indargabetu. Horrek lege horien erreferentziak eguneratu beharra dakar Deustuko Unibertsitateko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauetan.

Hori dela eta, beharrezko izapideak beteta, Zuzendaritza Kontseiluak nahitaezko txostena eginda eta Kontseilu Akademikoak onespena emanda, honako hau XEDATU DA:

Lehen artikulua. Ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauen aldatzea

Aldatu egin dira Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauak (Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 2/2016 Erabakiaren bidez onartuak eta Kontseilu Akademikoaren azaroaren 24ko 2/2022 Erabakiaren eta Kontseilu Akademikoaren martxoaren 9ko 2/2023 Erabakiaren bidez aldatuak), honetara:

1. 10. artikuluko 14. apartatua indargabetu da.
2. V. kapitulua gehitu da, eduki honekin:

V

Kompentsaziozko ebaluazioa

14. artikulua. Kompentsaziozko ebaluazioaren helburua

Kompentsaziozko ebaluazioaren helburua da baloratzea ea ikasketa planeko irakasgai guztiak gainditu ez dituen ikasle batek graduko titulua eskuratu lezakeen, kontuan hartuta bereganatu dituen jakintza eta gaitasunak eta izan duen errendimendu akademikoa, betiere hurrengo artikuluetako baldintzak betetzen baditu.

15. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa

1. Kompentsazio bidezko salbuespenezko ebaluazioa graduko ikasketa ofizialei bakarrik aplikatuko zaie, Egoitza Santuko tituluei izan ezik (Teologia Fakultatea).
2. Irakasgai eta eskakizun hauek ezin izango dira konpentsatu:
 - 2.1. 6 kreditu baino gehiagoko irakasgaiak.
 - 2.2. Balioei buruzko giza prestakuntza moduluko irakasgaiak.
 - 2.3. Gradu amaierako lana.
 - 2.4. Kanpoko praktikak, nahitaezkoak zein hautazkoak izan.
 - 2.5. Titulua lortzeko ezarritako hizkuntza eskakizuna.
3. Tituluaren aipamen baten parte den irakasgai bat konpentsazioz ebaluatzeak aipamena galtzea ekarriko du.

Artículo 16. Condiciones para solicitar la evaluación por compensación

Para solicitar la evaluación por compensación el estudiante debe cumplir las siguientes condiciones cumulativas:

1. Haber matriculado y cursado en la Universidad de Deusto al menos el 75% de los estudios de Grado a los que corresponde la asignatura objeto de la solicitud. Computarán a estos efectos exclusivamente los siguientes créditos reconocidos:

- los obtenidos por programas de movilidad de dicho plan de estudios;
- aquellos cuyo origen sean asignaturas de estudios oficiales de Grado cursados y superados en la UD.

2. Haber agotado cuatro convocatorias, entre ordinarias y extraordinarias, salvo normativa específica de la facultad que fuera más restrictiva.

3. No haber sido sancionado, tras el procedimiento establecido en el Reglamento de Estudiantes, por motivo de conductas que defrauden el sistema de comprobación del rendimiento académico.

Artículo 17. Evaluación por compensación en las programaciones conjuntas

La compensación en el marco de una programación conjunta (PCEO) tendrá efectos exclusivamente en el plan de estudios del grado al que pertenece la asignatura cuya compensación se solicita. En consecuencia, no tendrá efectos en la asignatura objeto de reconocimiento en el otro plan de estudios de grado que forma parte de la programación conjunta; por lo que el estudiante deberá cursar y matricular esta segunda asignatura.

Artículo 18. Composición del tribunal de evaluación por compensación

1. Las solicitudes de evaluación por compensación presentadas en cada una de las facultades serán resueltas por el tribunal nombrado, convocado y presidido por el rector, o vicerrector en quien él delegue.

2. Además del presidente, el tribunal estará integrado por el decano de la facultad y por tres profesores del centro que pertenezcan a áreas de conocimiento diferentes y que serán propuestos por la Junta de facultad al inicio de cada curso académico. El secretario o el vicesecretario de la facultad ejercerá las funciones de secretario del tribunal, con voz pero sin voto.

3. Los miembros del tribunal que hubieran calificado al estudiante en alguna convocatoria de la asignatura cuya compensación se esté juzgando no podrán participar en la valoración y decisión del tribunal en ese caso y se designará a un suplente.

Artículo 19. Resolución y acta del tribunal de evaluación por compensación

1. El tribunal valorará en su globalidad la trayectoria académica del estudiante a lo largo de los estudios para los que solicita evaluación compensatoria, analizando las calificaciones que consten en su expediente y cuanta información complementaria considere oportuna, en orden a la justificación de sus decisiones.

16. artikulua. Konpentsaziozko ebaluazioa eskatzeko baldintzak

Konpentsaziozko ebaluazioa eskatzeko, ikasleak baldintza hauek denak bete behar ditu:

1. Deustuko Unibertsitatean matrikulatu eta egin izana eskaeraren xede den irakasgaiari dagozkion graduiko ikasketen % 75, gutxienez. Ondorio horietarako, aitortutako kreditu hauek bakarrik zenbatuko dira:

- Ikasketa plan horretatik mugikortasun programen bidez lortutakoak.
- Deustuko Unibertsitatean egin eta gainditutako graduiko ikasketa ofizialeko irakasgaiengatik lortutakoak.

2. Lau deialdi agortu izana, ohikoak eta ezohikoak batuta, salbu eta fakultateko araudi espezifikoak murriztaileagoa bada.

3. Errendimendu akademikoa egiaztatzeko sistemari iruzur egiten dioten jokabideengatik zehapenik jaso ez izana, Ikasleen Araudian ezarritako prozedura bete ondoren.

17. artikulua. Konpentsaziozko ebaluazioa programazio bateratuetan

Programazio bateratuetan, konpentsatzeko eskatu den irakasgaia zein gradutakoa den, gradu horren ikasketa planean bakarrik izango ditu ondorioak. Hortaz, ez du ondorioz izango programazio bateratuen parte den beste graduiko ikasketa planean aitortu beharreko irakasgaian; beraz, ikasleak bigarren irakasgai hori matrikulatu eta egin beharko du.

18. artikulua. Konpentsaziozko ebaluaziorako epaimahaiaren osaera

1. Fakultate bakoitzean aurkeztutako konpentsaziozko ebaluazioen eskaerak berriazko epaimahai batek ebartziko ditu. Epaimahai hori errektoreak edo berak eskuordetutako errektoreordeak izendatu eta deituko du eta bera izango da epaimahaiburua.

2. Epaimahaiburuaz gain, fakultateko dekanok eta fakultateko hiru irakasleak, jakintza arlo desberdinetakoek, osatuko dute epaimahaia. Irakasle horiek fakultateko batzordeak proposatuko ditu ikasturte bakoitzaren hasieran. Fakultateko idazkariak edo idazkariordeak egingo ditu epaimahaiko idazkari lanak, hitzarekin baina botorik gabe.

3. Epaimahaikideren batek konpentsatzeko eskatu den irakasgaiaren deialdiren batean kalifikatu badu ikaslea, ezin izango du epaimahaiaren balorazioan eta ebazpenean parte hartu, eta ordezkari bat izendatuko da.

19. artikulua. Konpentsaziozko ebaluaziorako epaimahaiaren ebazpena eta akta

1. Epaimahaiak bere osotasunean baloratuko du ikasleak konpentsaziozko ebaluazioa eskatu duen ikasketetan zehar izan duen ibilbide akademikoa eta, horretarako, espedientearen dituen kalifikazioak eta egoki jotzen duen informazio osagarri guztia aztertuko ditu, bere erabakiak justifikatze aldera.



2. En ningún caso se podrán realizar al estudiante nuevas pruebas de examen.

3. En caso de no existir acuerdo unánime en la decisión y si se diera empate, prevalecerá el voto de calidad del presidente.

4. El tribunal de compensación deberá resolver motivadamente todas las solicitudes en sentido favorable o desfavorable y comunicar su resolución en un plazo máximo de siete días naturales contados a partir del final del período de solicitud habilitado.

5. El secretario del tribunal levantará acta de la reunión en la que deberá quedar constancia de la resolución, favorable o desfavorable, motivada. El acta de la reunión será firmada por el presidente del tribunal, el decano y el secretario del tribunal. El secretario remitirá a continuación el acta a secretaría general, quien comunicará la resolución al estudiante.

Artículo 20. Efectos de la resolución en el expediente académico

1. La resolución adoptada por el tribunal de compensación no podrá ser objeto de reclamación.

2. Las resoluciones favorables se trasladarán al expediente del estudiante haciendo constar en el mismo «Aprobado por compensación» y la calificación numérica 5.

3. La resolución desfavorable del tribunal de compensación no supondrá consumo de convocatoria.

3. Se introduce una disposición derogatoria octava, cuya redacción queda como sigue:

Octava. Queda derogado el Acuerdo 7/2017, de 30 de mayo, del Consejo de Dirección, por el que se regula la evaluación excepcional por compensación para estudios de primer ciclo, modificado por el Acuerdo 10/2019, de 18 de junio, del Consejo de Dirección.

Artículo dos. Ley orgánica 2/2023, de 22 de marzo del sistema universitario

Se sustituye la referencia a la Ley orgánica 6/2001, de diciembre, de universidades, por la Ley orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del sistema universitario.

Artículo tres. Entrada en vigor

La presente modificación entrará en vigor, tras su publicación en el BOUD, a partir de la matrícula del curso 2024-2025.

2. Ikasleari ezin izango zaio azterketa proba berririk egin.

3. Erabakian aho bateko adostasunik ez badago, eta berdinketa gertatzen bada, epaimahaiburuaren kalitateko botoa gailenduko da.

4. Konpentsazio epaimahaiak arrazoituta ebatzi beharko ditu eskabide guztiak, bai konpentsazioaren aldekoak, bai kontrakoak, eta gehienez ere zazpi egun naturaleko epean jakinarazi beharko du ebazpena, eskaera egiteko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

5. Epaimahaiko idazkariak bileraren akta egingo du, eta akta horretan konpentsazioaren aldeko edo kontrako ebazpen arrazoitua jaso beharko da. Bileraren akta epaimahaiburuak, dekanok eta epaimahaiko idazkariak sinatuko dute. Ondoren, idazkariak Idazkaritza Orokorrera bidaliko du akta, eta handik jakinaraziko zaio ebazpena ikasleari.

20. artikulua. Ebazpenak espediente akademikoan dituen ondorioak

1. Konpentsazio epaimahaiak hartutako ebazpenari ezin izango zaio erreklamaziorik egin.

2. Aldeko ebazpenak ikaslearen espedientera eramango dira, eta bertan «Nahikoa konpentsazioz» eta 5 zenbakizko kalifikazioa jarriko dira.

3. Konpentsazio epaimahaiak konpentsazioaren kontrako ebazpena eman ez gero, horrek ez du deialdirik kontsumituko.

3. Zortzigarren xedapen indargabetzailea gehitu da, honela idatzita:

Zortzigarrena. Indargabetuta geratzen da Zuzendaritza Kontseiluaren maiatzaren 30eko 7/2017 Erabakia, lehen zikloko ikasketetarako konpentsazio bidezko salbuespenezko ebaluazioa arautzen duena, Zuzendaritza Kontseiluaren ekainaren 18ko 10/2019 Erabakiaren bidez aldatua.

Bigarren artikulua. 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena

Unibertsitatei buruzko abenduaren 6ko 6/2001 Lege Organikoi egindako erreferentzietan, Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoa jarri da.

Hirugarren artikulua. Indarrean sartzea

Aldaketa hau 2024-2025 ikasturteko matrikulatik aurrera jarriko da indarrean, DUAOn argitaratu ondoren.

TEXTO REFUNDIDO

Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico, por el que se aprueba la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto (promulgado por Orden del Rector 28/2016, de 14 de diciembre), modificado por el Acuerdo 2/2022, de 24 de noviembre, del Consejo Académico, por el Acuerdo 2/2023, de 9 de marzo, del Consejo Académico y por el Acuerdo 2/2024, del 13 de junio, del Consejo Académico.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS I

La profunda reforma que ha significado la implementación de los títulos y planes de estudio dentro de la nueva ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales establecida por el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, ha implicado una intensa actividad también en el ámbito normativo, como se evidencia en el amplio repertorio de normativas académicas, generales y específicas, que han sido elaboradas para regular las diversas actividades desarrolladas por los estudiantes en el proceso formativo conducente a la obtención del título universitario. Dichas normativas, dando cumplimiento a la tramitación establecida en los Estatutos Generales de esta Universidad de Deusto, han sido promulgadas por Orden del Rector tras su aprobación en Acuerdos del Consejo Académico.

Cara al inicio de la impartición de los estudios de primer ciclo diseñados al amparo de dicho RD y mediante el Acuerdo 2/2008, de 18 de diciembre, se estableció una Normativa Académica General que adecuaba al nuevo contexto las normas básicas que debían regir la trayectoria de los estudiantes para la obtención del título de Grado, desde el proceso de admisión y matrícula hasta las condiciones de paso de curso y permanencia, fijando el número de convocatorias de evaluación y las condiciones de renuncia al derecho de convocatoria, e incluyendo de forma incipiente los criterios de reconocimiento y transferencia que se abren con la nueva regulación. Dicha normativa fue objeto de ampliaciones y modificaciones en su articulado por los Acuerdos 3/2010, de 24 de junio, y 1/2012, de 21 de junio, adaptándola a los cambios que la puesta en práctica mostraba necesarios y entre los que cabe destacar la nueva ordenación de los periodos de evaluación y calificación final en convocatoria extraordinaria, situándolos de forma consecutiva al de ordinaria, más acorde con el sistema de evaluación continua establecido en los nuevos estudios.

En cumplimiento del artículo 6.1. Reconocimiento y transferencia de créditos, del RD 1393/2007, se elabora y aprueba por Acuerdo 1/2010 de 25 de marzo, la Normativa Académica Específica para el Reconocimiento y Transferencia de créditos en las titulaciones de Grado, que pronto había de ser modificada mediante el Acuerdo 1/2011 de 24 de marzo, a fin de introducir las nuevas posibilidades que introducía en la materia el RD 861/2010, de 2 de julio, y desarrollando un articulado más extenso fruto de la experiencia adquirida ya con la implementación de los nuevos estudios. Con posterioridad, por Acuerdo 2/2015 de 18 de junio, esta Normativa habrá de ser modificada con el objeto de establecer los criterios y los términos en los que se incorporan al sistema de reconocimientos los títulos de Educación Superior, a tenor de la Ley Orgánica 2/2006 de Educación.

Las Prácticas Externas son otro de los aspectos originales en los planes de estudio de la nueva ordenación que ha exigido una regulación específica, a diferentes niveles. El Estatuto del Estudiante Universitario, aprobado por RD 1791/2010, de 30

TESTU BATEGINA

Kontseilu Akademikoaren 2/2016 Erabakia, abenduaren 13koa, Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauak onartzen dituena (Errektorearen abenduaren 14ko 28/2016 Aginduak onartua), Kontseilu Akademikoaren azaroaren 24ko 2/2022 Erabakiaren, Kontseilu Akademikoaren martxoaren 9ko 2/2023 Erabakiaren eta Kontseilu Akademikoaren ekainaren 13ko 2/2024 Erabakiaren bidez aldatua.

ZIOEN AZALPEN A I

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak ezarritako unibertsitateko ikasketa ofizialen antolamendu berriak tituluen eta ikasketa planen ezarpenean ekarri duen aldaketa sakinak araudien esparruan ere jardun beharra ekarri du. Horren erakusgarri da ikasleek unibertsitateko titulua eskuratzera bideratutako prestakuntza prozesuan garatzen dituzten jarduerak arautzeko sortu diren arau akademiko orokor eta berezien bilduma ugaria. Deustuko Unibertsitate honetako Estatutu Orokorretan ezarritako izapidetzea betetz, Errektorearen Aginduen bidez aldarrikatu dira arauok, Kontseilu Akademikoak onartu ondoren.

ED horren babesean diseinatu diren lehenengo zikloko ikasketak ematen hasteko, abenduaren 18ko 2/2008 erabakiaren bidez, Ikasketen Araudi Orokorra ezarri zen, Graduak titulua eskuratzeko ikasleen ibilbidea arautu behar zuten oinarriko arauak testuinguru berrira egokitzeko, arlo guztiak hartuta, alegia, onarpen eta matrikula prozesua, hurrengo mailara pasatzeko eta ikasten jarraitzeko baldintzak, ebaluazio deialdi kopurua, azterketa-deialdira aurkezteko eskubideari uko egiteko baldintzak, eta araudi berriak aitormenerako eta transferentziarako ekarri dituen irizpideak. Praktikaren ondorioz, araudi horren zenbait artikulua zabaldu eta aldatu beharra ikusi zen eta hala egin zen ekainaren 24ko 3/2010 eta ekainaren 21eko 1/2012 erabakien bidez. Moldaketan artean, azpimarratzekoa da ezohiko deialdiko azken ebaluazio eta kalifikazio epearen aldaketa (ohiko deialdiaren ondoren jarri zen, ikasketa berrietako etengabeko ebaluazio sistemarekin egokiago zetorrelako).

1393/2007 EDaren «6.1. Kredituen transferentzia eta aitortzea» artikulua betetzeko, martxoaren 25eko 1/2010 erabakia prestatu eta onartu zen, Graduak titulazioetako kredituen aitormen eta transferentziarako Berariazko Araudi Akademikoa. Handik lasterrera aldatu zen martxoaren 24ko 1/2011 erabakiaren bidez, gai horretan uztailaren 2ko 861/2010 EDak ekarri zituen aukera berriak jasotzeko, eta ikasketak ezarri ahala hartutako esperientziarekin garatzeko. Ondoren, ekainaren 18ko 2/2015 erabakiaren bidez, berriro aldatu zen araudia, Goi Hezkuntzako tituluak aitormen sistemara egokitzeko irizpideak eta terminoak ezartzeko, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren arabera.

Kanpoko praktiken da ikasketa planen antolamendu berriaren berriaz arautu behar izan den beste arlo bat, hainbat mailatan. Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuak (abenduaren 10eko 1707/2011 EDak onartutakoa) VI. kapitulua es-



de diciembre, dedica su Capítulo VI a esta actividad formativa, regulada posteriormente por RD 1707/2011, de 18 de noviembre. En consonancia con la nueva legislación, la Universidad de Deusto establece la Normativa General de Prácticas externas para los títulos de Grado y Máster Universitario a través del Acuerdo 8/2011 de 20 de diciembre, regulándolas en las diversas y múltiples facetas que implica su desarrollo.

El RD 1393/2007 introduce otro precepto igualmente novedoso, como es que las enseñanzas oficiales concluirán con la elaboración y defensa de un trabajo de fin de estudios, tanto sea de nivel de Grado como de nivel de Máster; trabajo que deberá regirse por la normativa específica elaborada por la universidad, según dicta el Estatuto del Estudiante Universitario (artículo 27.3). Así, en cumplimiento de esta exigencia y para salvaguardar los derechos de los estudiantes expresamente declarados en dicho Estatuto, y con el objetivo de unificar criterios y procedimientos que permitan garantizar un marco homogéneo para todas las titulaciones implantadas en esta Universidad, por Acuerdo 3/2011, de 23 de junio, se establece la Normativa General sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de Grado. El trabajo fin de Máster no había sido objeto de regulación específica.

Un recorrido normativo similar dibuja la posibilidad de obtención de créditos mediante actividades universitarias de carácter transversal que completen y consoliden la formación integral de los estudiantes, pues desde su origen en el RD 1393/2007, pasando por el imperativo del Estatuto del Estudiante Universitario para que las universidades regulen el procedimiento al caso, se alcanza el Acuerdo 6/2011 de 20 de diciembre, por el que se aprueba la Normativa de reconocimiento en créditos de actividades universitarias culturales, deportivas, de representación estudiantil, solidarias y de cooperación, con un ámbito de aplicación limitado a los estudios de Grado. La cual convendría extender a los estudios de Máster Universitario, dentro de los términos marcados por las disposiciones oficiales, reforzando así uno de los fines propios de esta Universidad de Deusto, entre los que se encuentra «formar personas que, desde su respectiva capacitación universitaria, fomenten en la sociedad el servicio de los valores de la persona integral, particularmente preocupada por la promoción de la justicia en el mundo y competente para trabajar por ella».

Habiendo llegado ya el momento de evaluación para la renovación de la acreditación de aquellos títulos de Grado implantados en el curso 2009-2010, parece oportuno analizar todo este repertorio normativo que les es de aplicación para introducir las mejoras que se estimen pertinentes. Al acometer la tarea, se hace evidente que el enunciado como Normativa Académica General que se dio al conjunto de normas elaborado para iniciar su impartición ha perdido valor descriptivo. Todas las que hemos reseñado son igualmente académicas y todas ellas de aplicación general, aunque regulen espacios de actividad específicos. Con el objetivo de que la denominación resulte significativa del contenido, se adopta la de Normativa de progreso y permanencia, por ser además la que se ha asentado para este tipo de normas en el ámbito universitario español.

Pasando al nivel de posgrados, la Universidad de Deusto contaba con una larga y reconocida tradición en la impartición de títulos propios cuando el RD 56/2005 incluye el título de Máster en la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, articulándolos en programas integrados por las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos de segundo y tercer ciclo, es decir, Máster y Doctorado. A fin de poten-

kaini zien kanpoko praktikei eta, gerora, azaroaren 18ko 1707/2011 EDak arautu zituen halako praktikak. Lege berriari jarraituz, Deustuko Unibertsitateak Gradu eta Unibertsitate Masterreko tituluetarako Kanpoko praktiken araudi orokorra ezarri zuen, abenduaren 20ko 8/2011ko Erabakiaren bidez, haien alderdi ugariak arautuz.

1393/2007 EDak beste arau berri bat erantsi zuen: ikasketa ofizialak ikasketen amaierako lan bat egin eta defendatuta amaitu behar ziren, bai gradu eta bai masterreko ikasketetan. Lan horren inguruko berariazko araua prestatu behar izan zuen Unibertsitateak, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuak (27.3. artikulua) zioenez. Eskakizun hori betetzeko eta Estatutu horretan ageri diren ikasleen eskubideak babesteko, eta Unibertsitateko titulazio guztietarako irizpideak eta prozedurak bateratu eta esparru homoginoa bermatzeko, ekainaren 23ko 3/2011 Erabakiak Gradu amaierako lana prestatu eta defendatzeko Araudi Orokorra ezarri zuen. Masterraren amaierako lanaren inguruko berariazko araurik ez da egin.

Antzerako arau baten bidez ematen da unibertsitateko zeharkako jarduerengatik kredituak jasotzeko aukera, halako jardueren ikasleen prestakuntza osoa ahalbidetzen dutela kontuan izanik. Hasierako 1393/2007 EDan eta Unibertsitateko Ikasleen Estatutuan jasotzen zen horretarako bidea, eta abenduaren 20ko 6/2011 Erabakiaren bidez onartu zen unibertsitateko kultur, kirol, ordezkaritza, elkartasun eta lan-kidetzako jarduerengatik kredituak aitortzeko modua, Gradu ikasketetarako soil-soilik. Araudia Unibertsitate Masterreko ikasketetara zabaltzea komeniko litzateke, xedapen ofizialetan ezarritakoaren barruan. Hartara, Deustuko Unibertsitatearen helburuetako bat indartzea lortuko litzateke: «zeinek bere prestakuntza unibertsitariotik, gizartean pertsona osoaren balioen zerbitzua bultzatuko duten pertsonak hezte, munduan justizia zabal dadin bereziki kezkatuak, horren alde lan egiteko gai izango direnak».

2009-2010 ikasturtean ezarritako Gradu titulua berriro akreditatzeko ebaluatu beharra heldu den honetan, egokia dirudi aplikatu beharreko arau horiek guztiak aztertzea, egoki diren hobekuntzak sartzeko. Zeregin horri ekiteko orduan, argi ikusi da titulua ematen hasteko prestatu ziren arauak eman zitzaizkien izenak, «Ikasketen Araudi Orokorra» alegia, galdu egin duela balio deskribatzailea. Aipatu ditugun arau guztiak dira ikasketei dagozkienak eta aplikazio orokorrekoak, jardura esparru zehatzak arautzen badituzte ere. Izena edukiarekin bat etorri eta esanguratsua izan dadin, «ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauak» izena ematea erabaki da, termino hori hedatu baita halako arauetarako Espainiako unibertsitate esparruan.

Graduondokoetara pasatuta, Deustuko Unibertsitateak ibilbide luze eta aitortua zuen titulu propioak eskaintzen, 56/2005 Errege Dekretuak Master titulua unibertsitateko irakaskuntza ofizialen antolatetan sartu zuenean. Aipatutako EDak bigarren eta hirugarren zikloko titulua eskuratzera bideratutako ikasketetan antolatutako zituena graduondoko ikasketak ofizialak, hau da, Master eta Doktoregoan. Uniberti-



ciar el desarrollo del nivel de posgrados en la Universidad, tanto oficiales como propios, y afrontar el reto de su adaptación al Espacio Europeo de Educación Superior, se crea el Instituto de Postgrado y Formación Continua (IPFC), cuyas normas reglamentarias particulares fueron aprobadas por el Acuerdo 31/2004, de 14 de octubre, del Consejo de Dirección.

En el nuevo escenario de posgrados que se dibuja con la promulgación del RD 1393/2007, que incide además en nuestra UD reorganizada en seis Facultades, que integran los Institutos Universitarios, el IPFC da paso a la Unidad Técnico-Académica de Posgrado (UTAP), que se constituye por Acuerdo 13/2010, de 17 de junio, del Consejo de Dirección, y a la que se encomienda la gestión de este nivel de formación especializada, bien sea en planes de estudio conducentes al título de Máster Universitario como conducentes a títulos propios.

Como resultado de su quehacer, con la implicación fundamental de todas las Facultades y de los Servicios de Apoyo Académico de la UD, también en el área de posgrados se encuentran ya asentados los principios, prácticas y procedimientos inherentes al nuevo sistema regulador de los estudios universitarios. Por consiguiente, dicha área ha quedado integrada directamente, sin instancia organizativa intermedia, en el ámbito general de Ordenación Académica de la Universidad.

En esta realidad, ha perdido funcionalidad la diferenciación de partida entre estudios de Grado y de Posgrado sobre la que ha venido elaborándose la normativa académica. El análisis de todo el conjunto hoy disponible pone en evidencia un abultado porcentaje de reiteración de las mismas normas en distintas normativas, así como un vacío normativo en el nivel de Posgrado en ciertos aspectos regulados específicamente para el nivel de Grado, como ya hemos reseñado. Lo cual entorpece y ralentiza considerablemente la gestión académica. Al estar comprendidos de hecho en la misma regulación, es más conveniente que el criterio de diferenciación entre normativas estribe en el ámbito de actividad formativa que viene a regular cada una de ellas, extendiéndose su ámbito de aplicación a los estudios de ambos ciclos.

Aunque su diseño obedezca a objetivos particulares, los planes de estudio en Programación Conjunta de Estudios Oficiales (PCEO) o en Programación Formativa Combinada (PFC) están igualmente comprendidos en la ordenación de las enseñanzas universitarias establecida por el RD 1393/2007. Su especificidad consiste en la planificación coordinada de los conocimientos, habilidades y competencias que progresivamente debe adquirir el estudiante para cumplir todas las exigencias que le permitan obtener dos títulos, bien sean de Grado o bien de Máster Universitario, en el caso de PCEO, o bien un título oficial y un título propio en el caso de PFC. Una planificación que se basa en el sistema de reconocimiento y transferencia de créditos consustancial a esta regulación y discurre en toda su extensión por los cauces establecidos para ella.

En consecuencia, a fin de asentar una estructura normativa que propicie una gestión académica más ágil, más operativa y eficiente, en suma, de mayor calidad, el ámbito de aplicación de las presentes normas de progreso y permanencia abarca todos los planes de estudio de primer ciclo y segundo ciclo comprendidos en la actual ordenación de los estudios universitarios, es decir, de nivel de Grado, de Máster y otros Posgrados, extendiéndose igualmente a los diseñados en PCEO y PFC.

tateko graduondoko maila (ofiziala eta propioa) sendotzen laguntzeko eta Europako Unibertsitate Eremura egokitzeko erronkari erantzuteko, Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzako Institutua sortu zen. Erakunde horren arauak Zuzendaritza Kontseiluaren urriaren 14ko 31/2004 Erabakiaren bidez onartu ziren.

1393/2007 EDa aldarrikatzeak eragina izan zuen graduondokoen ikuspegian. Deustuko Unibertsitatearen egitura sei fakultatetara ekarri berria zen eta antolaketa berrian unibertsitateko institutu guztiak fakultate horietara bildu nahi izan ziren. Gauzak horrela, Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzako Institutua Graduondoko Unitate Tekniko-akademiko bihurtu zen Zuzendaritza Kontseiluaren ekainaren 17ko 13/2010 Erabakiaren bidez, eta unitate horri agindu zitzaion prestakuntza espezializatu hori kudeatzeko, bai Unibertsitate Master titulua eskuratzera bideratutako planetakoa eta bai titulu propioetakoa.

Haren lanaren emaitzari esker, eta fakultate guztietako eta DUren laguntza akademikorako zerbitzuen inplikazioaren laguntzaz, ezarrita eta sendotuta daude unibertsitateko ikasketen sistema berriaren oinarri, jardunbide eta prozedurak. Hortaz, arlo hori Unibertsitateko Ikasketen Antolamendu orokorraren esparruan geratu da, tarteko antolaketa-erakunderik gabe.

Gauzak horrela, gaur egun ez du zentzurik arau akademikoetan graduoko eta graduondoko ikasketen arteko bereizkuntza egiteak. Gaur egungo arau guztien azterketak agerian jarri du arauetan badela errepikapen kopuru nabarmena, batetik; eta, bestetik, hutsunea dagoela graduondoko mailako arauetan, gradu mailan berriaz araututa dauden arlo batzuetan, goian aipatu denez. Horrek trabatu eta moteldu egiten du kudeaketa akademikoa. Dekretu beraren azpian egonik, komenigarriagoa da prestakuntza-jarduera izatea araudiak bereizteko irizpidea, eta aplikazio eremua bi zikloetako ikasketetara zabaltzea.

Haien diseinua helburu bereziei badagokie ere, ikasketa ofizialen programazio bateratuko edo programazio konbinatuko ikasketa planak ere 1393/2007 EDan ezarritako unibertsitateko irakaskuntzen antolaketan daude sartuta. Bereiztasuna hauxe da: ikasleak bi tituluak (graduokoak edo unibertsitate masterrekoak, ikasketa ofizialen programazio bateratuetan, eta titulu ofiziala eta titulu propioa programazio konbinatuetan) eskuratzeko eskakizun guztiak betetzeko lortu behar dituen ezagutza, trebetasun eta gaitasunen planifikazio koordinatua. Plangintza hori kredituen transferentzia eta aitorten sisteman oinarritzen da.

Honenbestez, ikasketen kudeaketa arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin, alegia, hobe, ikasketetan aurrera egin ahal izateko eta jarraitu ahal izateko arau hauen aplikazio eremuak unibertsitateko lehen eta bigarren zikloko ikasketa plan guztiak hartzen ditu, hau da, graduoko, masterreko eta beste graduondoko batzuetako ikasketak, baita ikasketa ofizialen programazio bateratuko eta programazio konbinatuko ikasketa planak ere.



Asimismo, serán de aplicación a los estudiantes que cursen los planes de estudio de primer ciclo y segundo ciclo impartidos por la Facultad de Teología y el Instituto Superior de Ciencias Religiosas, conducentes a los títulos eclesiásticos regulados por la *Sapientia Christiana* y por la Instrucción de la Congregación para la Educación Católica sobre los Institutos Superiores de Ciencias Religiosas, respectivamente. En razón del régimen de equivalencias de los estudios y titulaciones de Ciencias Eclesiásticas de nivel universitario respecto de los títulos universitarios españoles, establecido por RD 1619/2011, de 14 de noviembre, tales títulos gozan de equivalencia a los títulos oficiales de Grado y Máster Universitario, según corresponda.

Para todos ellos se regulan las condiciones de ingreso y de matrícula, fijándose las modalidades en el régimen de dedicación y los efectos de la anulación de matrícula, las condiciones de progreso, tanto generales como específicas de las Prácticas externas y de los Trabajo Fin de estudios, comprendiendo las normas sobre convocatorias de evaluación y renuncia al derecho de convocatoria, y las condiciones de permanencia, así como las de su interrupción.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS II

[correspondiente al Acuerdo 2/2022, de 24 de noviembre, del Consejo Académico y Acuerdo 2/2023, de 9 de marzo, del Consejo Académico, que modifican el Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico, por el que se aprueba la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto]

Desde la aprobación en 2016 de la normativa general de progreso y permanencia de la Universidad de Deusto (Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico), han tenido lugar dos hechos relevantes que han requerido una reflexión y la posterior adaptación de estas normas.

Por un lado, la Universidad de Deusto ha incluido en sus enseñanzas de grado la modalidad virtual, lo que requiere la integración de este alumnado en el rigor de las normas de progreso y permanencia. A tal efecto se ha eliminado, en las condiciones generales de permanencia, la distinción entre el régimen de dedicación a tiempo completo y a tiempo parcial; asimismo, se ha previsto la posibilidad de defender los trabajos fin de estudios en formato virtual para el alumnado matriculado en esta modalidad.

Por otro lado, el Poder Ejecutivo aprobó el Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, por el que se establece la organización de las enseñanzas universitarias y del procedimiento de aseguramiento de su calidad. Este Real Decreto otorga a las universidades la posibilidad excepcional de establecer procedimientos de matrícula condicionada para el acceso a enseñanzas oficiales de Máster Universitario, permitiendo que un estudiante de Grado al que le reste por superar el Trabajo Final de Grado y como máximo hasta 9 créditos ECTS, se matricule en un Máster oficial Universitario, si bien en ningún caso podrá obtener el título de Máster si previamente no ha obtenido el título de Grado. Esta posibilidad es asumida ahora con carácter general y bajo determinadas condiciones por la Universidad de Deusto, si bien las facultades podrán prever su no aplicación, a través de la normativa específica de cada titulación.

Horrez gain, Teologia Fakultateko eta Erljio Zientzien Goi Institutuko lehen eta bigarren zikloetako ikasketa planak egin dituzten ikasleei ere aplikatuko zaizkie. Teologia Fakultateko ikasketak *Sapientia Christiana* araututako eliz tituluak lortzera bideratuta daude eta Erljio Zientzien Goi Institutuko ikasketak *Irakaskuntza Katolikorako Kongregazioaren Erljio Zientzien Goi Institutuei buruzko Instrukzioek* araututako eliz tituluak eskuratzen. Azaroaren 14ko 1619/2011 EDak Eliz Zientzietako ikasketa eta titulazioen eta Espainiako titulu unibertsitarioen arteko baliokidetzaren erregimena ezarri zuen eta, haren ondorioz, eliz zientzietako titulu horiek gradu eta unibertsitate master titulu ofizialen baliokide dira, zein dagokionaren.

Ikasketa plan guztientzat zehaztu dira sartzeko eta matrikula egiteko arauak: dedikazio modalitateak, matrikula deuseztatzearen ondorioak, aurrera egin ahal izateko baldintzak, kanpoko praktiken eta ikasketen amaierako lanen baldintza orokorrak eta zehatzak, ebaluazio deialdiak, deialdiari uko egiteko eskubidea, ikasketetan jarraitu ahal izateko baldintzak eta ikasketak eteteari buruzkoak.

ZIOEN AZALPENA II

[Erabaki hauei dagokie: Kontseilu Akademikoaren 2/2022 Erabakia, azaroaren 24koa, eta Kontseilu Akademikoaren 2/2023 Erabakia, martxoaren 9koa, Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko arauak onartu zituen Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 2/2016 Erabakia aldatu zutenak]

2016an Deustuko Unibertsitatean ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudia onartu zenetik (Kontseilu Akademikoaren 2/2016 Erabakia, abenduaren 13koa), bi gertakari garrantzitsu izan dira eta, ondorioz, gogoeta egin eta arau horiek egokitu behar izan dira.

Alde batetik, Deustuko Unibertsitateak modalitate birtuala ezarri du graduko irakaskuntzetan eta, beraz, egoera horrek eskatzen du modalitate horretako ikasleak ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudiaren barruan sartzea. Hori dela eta, kendu egin da, jarraitzeko araudiaren baldintza orokorretan, lanaldi osoko dedikazioaren eta lanaldi partzialeko dedikazioaren arteko bereizketa; era berean, formatu birtualean matrikulatutako ikasleentzat ikasketen amaierako lanak formatu horretan defendatzeko aukera aurreikusi da.

Bestalde, Botere Exekutiboak irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretua onartu zuen, unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen. Errege Dekretu horrek salbuespenezko aukera ematen die unibertsitatei Unibertsitate Masterreko ikasketa ofizialeetan sartzeko matrikula baldintzatutako prozedurak ezartzeko, eta aukera ematen dio Gradu Amaierako Lana eta gehienez 9 ECTS kreditu gainditzeko geratzen zaion Graduko ikasleari Unibertsitate Master Ofizial batean matrikulatzeko, baina ezin izango du inola ere Masterreko titulua eskuratu, baldin eta aurretik Graduko titulua lortu ez badu. Aukera hori, orain, Deustuko Unibertsitateak hartzen du bere gain, oro har eta baldintza jakin batzuetan, nahiz eta fakultateek ez aplikatzea aurreikusi ahal izango duten, titulazio bakoitzaren araudi espezifikoaren bidez.



En este nuevo contexto, el Consejo Académico ha aprobado la modificación de la normativa de progreso y permanencia de la Universidad de Deusto.

Testuinguru berri horretan, Kontseilu Akademikoak Deustuko Unibertsitatean ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudia aldatzea onartu du.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS III

[correspondiente al Acuerdo 2/2024, de 13 de junio, por el que se modifica la normativa de progreso y permanencia en los estudios de primer y segundo ciclo impartidos en la Universidad de Deusto, aprobada por el Acuerdo 2/2016, de 13 de diciembre, del Consejo Académico y modificado por el Acuerdo 2/2022, de 24 de noviembre, del Consejo Académico y por el Acuerdo 2/2023, de 9 de marzo, del Consejo Académico]

ZIOEN AZALPENA III

[Erabaki honi dagokio: Kontseilu Akademikoaren 2/2024 Erabakia, ekainaren 13koa, Deustuko Unibertsitatean ematen diren lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudia (Kontseilu Akademikoaren abenduaren 13ko 2/2016 Erabakiaren bidez onartua eta Kontseilu Akademikoaren azaroaren 24ko 2/2022 Erabakiaren bidez eta Kontseilu Akademikoaren martxoaren 9ko 2/2023 Erabakiaren bidez aldatua) aldatzen duena]

1. En el contexto universitario, los tribunales de compensación tienen por objeto evaluar la posibilidad de que un estudiante obtenga el título de grado aun cuando no haya superado todas las asignaturas propias del plan de estudios.

Tales tribunales encuentran su fundamento jurídico en el principio de autonomía de las universidades, que comprende, entre otros aspectos, la verificación de conocimientos, competencias y habilidades del estudiantado (art. 3.2.l Ley orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del sistema universitario).

